

## EUSKAL-LITERATURA BERE BARNETIK IKERTUAZ

JUAN SAN MARTIN

Edonongo literaturak bere nortasunean heldutasun batera iristen denean bere barnetikako kritika saioak ditu agergarririk berezianak. Euskarazko aldizkarietan, zenbait libururen parteetan eta bereziki liburuen hitzaurreetan, maiz agertu dira euskal-literaturari buruzko barnetikako azterketak, baina liburu osoak hortaz argitaratzea oso berria zaigu.

“Literatura testuak aztertzea modan jarri dela gaur leku guztietan esan genezake. Azken urteotan hainbat liburu argitaratu dira gai hortaz. Baina ez dut uste bat ere argitaratu denik euskaraz.” Hala dio Mikel Zaratek argitara berri duen *Euskal Literatura* (Azterbideak, Aztergaiak, Azterketak) liburua sarreran. Baina liburu beraren bibliografia partea begiratzeko badugu Azurmendiaren *Zer dugu Orixeren kontra*, Begiarmenaren *Sei idazle plazara*, elkar laneko *Xabier Lizardi* eta Sarasolaren *Txillardegia eta Saizarbitoriaren Nobelagintza* aipatzen dira behinik-pehin, maila bereko azterketak ez badira ere, ezin ukatu literatura azterketakoak ez direnik.

Egia esan, gure belaunaldi honetan era guzietako errehabilitazioak gailentzen diren garaian literatura azterketak ere bere lekua izatea

ezta batere harritzekoa, mendearen seme garenez gero, Ideiak eta balioak erroetaraino ikusmiratu nahi dira, eta Mitxelena ongi zion bezala, kritika eta eraberritzea geuron kaltean izango badira ere, horiexen beharrea gaude.

Gure literatura bere barnetik erakutsiaz datozen liburu hoiek literaturagintzaren aro berri baten aurrean jartzen gaitu. Lanok, etorkizunean gidari izango ditugu, elkarri erakutsiaz maila hobe bateko egoera aurkitzera eramango gaituanez. Zeren, azken batean, aburuak markatuko diskigute biderik zihurrenak.

Karlos Otegik, *Pertsonaia euskal nobelagintzan* deritzan liburua sarrean honako uste hau agertzen bai digu: “Baina, hauxe da arazoa. Euskarak baduela bere literatura propioa, eta geuk, inork izatekotan, behar dugula aurkitu, aztertu, kritikoki jakina, eta ezagutzera eman, norabidetu eta landu.”

Honako aitortpen honen ondotik, literaturaren saiaerazko liburu hauen hariaren berri soil soil emango duk, barneragotik ezagutu nahi duen irakurlearen lagungarri. Hara hemen testu aztertzen agertu diren bost libururen berri:

*Sei idazle plazara* (1974) bi tomatan argitaratu zuen Jakin argitaldaria. Estrukturalismoaren teknika arabera Mitxelena, Aresti, Larresoro, Azurmendi, Garate eta Ansola euskal izkribatzaileen ideologiazko azterketak agertzen dituzten P. Iztueta eta J. Apalategik “Begiarmen”en izenpean. 1975eko urriaren seian HOJA DEL LUNES honetan egin nion kritika aski luze bat. Nere ustez, oinarriko huts bat du obra honek, alde aurretik baldintza estuegiak harturik hasia denez, baldintza horiek egiztatzeko garrantzitsuak ditu hainbeste material beste ikusmoldeetakoak bertan behera utziaz. Hala ere, langintzarako metodologia berri bat agertu zuen, lan ederrak burutzeko ahalmena idekiko zutena, eta neurri handi batean obra berak ere salatu genuena baino alde hobeak gehiago ditu. Ikerketarako urrats handi bat izan zen.

*Txillardegia eta Saizarbitoriaren Nobelagintza* (1975), Kriseluk argitaratua, biziki ona da. Gure belaunaldi honetan euskaraz idatzi diren eleberririk hoberekin aztertzen ditu, Txillardegia eta Saizarbitoriaren eleberrien analisi serioak eginaz, irakurlearentzat gidari izango direnak. Kritika ondo burutzeaz gainera irakurgai atsegina iduritu zitzaidan I. Sarasolaren liburu hau.

*Zer dugu Orixeren kontra* (1976), Jakinek argitaratua. Joxe Azurmendiren liburu hau, bere gehienak bezala, ez da lotzen holako teknika zehatz bati metodologiaren aldetik, baina bere ideien jario aspergaitzak filosofia mugetatik ari den saio sakona burutzen du. Orixekin, inoiz gehienok pasatu ginen behar zen neurritik harat eta Azurmendik arrazoiz botatzen digu aurpegira. Gazteluk ongi zion bezala "behar bada euskal idazle batek luze-zabalean eta kalidadean inoiz utzi duen larriena, handi-haundizka harturik". Egia esan, Orixe bere handitasunean onartzeak ez dakar kalterik, kalteak idolotzat hartzetik datorzke. Idolo bati ahoa zabalik begira egoteaz lo hartzeko arriskua duenez eta elkar lanean aritzeak dinamika pizgarria. Baina, gaur, zorionez, ez daukagu holako arriskurik, zeren goi mailetan ari diren idazleen artekoak anitz ditugunez.

*Pertsonaia euskal nobelagintzan* (1976) delako saiaera ederra Gerok argitaratua da. Karlos Otegi du egile, baina ulertzen ez duguna zera da, euskaratzaile hala zuzentzaile, zertan parte hartu duen Dionisio Amundarainek. Holako lan bat hain ondo burutzeko behar beharrezkoa zuen egileak euskaraz ondo jakin beharra, erabili dituen lanok euskaraz daudenez. Dena dela, bertako saieraren aburuak dira interesatzen zaizkigunak. Eleberriaren muina ondo ezagutzeko beharrezkoa zaigu bertan erabiltzen diren pertsonajeak ongi ezagutzea eta hontara garamaz liburuaren egileak. Txomin Agirreren *Garoa*, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, A. Lertxundiren *Ajea du Urturik* eta M. Ugaldere *Itsasoa ur-bazter luzea da* eleberrietako pertsonaietan oinarritzen da egilea, etxeko eta kanpoko anitz obrakin konparaketak eginaz.

Azkenik, *Euskal Literatura*, aurtan Leopoldo Zugazak argitaratua. Mikel Zarateren liburu honen xedea zenbait idazkariren lanetan aurkitzen diren une ilunak, sinbolojiak, ideiak eta gainerrako moldeak aztertzea da, nahiz hizlaurkoak edo nahiz hizneur-tuzkoak. Txomin Agirre, Otsalar, J. Azurmendi, Lauaxeta, J. M. Le-kuona, R. Bustintza, Gandiaga, Intxausti, Aresti, X. Garmendia eta Saizarbitoriaren zenbait lanetan oinarriturik literatura irakurketarako lagungarri izan nahi du. Idazle bakoitzaren ingurua eta iturriak ere adiarazten ditu. Humorea ere humore sendoa du, Ortega y Gasset eta Unamunok beren marfilezko dorretik gure hizkuntzaren ezerreza eta hiletak kontatu bazituzten ere, Lizardi eta Mikel Zaratek bertsoz kantatuko digute, handi mandirik gabe, gure hizkuntza apal honen gogo berria eta noranahikotasuna.

Obra hoiek erakusten digute lanaren jardunez zertarako garan eta zertarako gauza den euskarazko literatura bera.

Azken bi liburuen egitura eta beren bibliografia iturriak bide berri bat markatzen digute ikerketazko saioetan laguntzeko. Bost obrok gure belaunaldi hontako literatura balioen lekuko dira. Gure literaturaz arduratzen diren guziek irakurri beharrezkoak eta, behar bada, euskal alfabetatzeetan irakurgaitzat erabili beharrezkoak, zene literatura erakutsiaz autoreak beren ilunbeetako agernahietara arte funtsez konprenitu ahal izateko erak ere agertzen bai dituzte. Eta horiek ezagutzeaz zernahitariko literaturak hobeto irentsiko bide baita.